



JASANGARRITASUNAREN ARLOKO INTZIDENTZIA KALTEGARRIAK KONTUAN HARTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

«Finantza-merkatuetako parte-hartzailatzat» eta «finantza-aholkularitzat» hartzen diren erakundeek informazioa argitaratu behar dute, jasangarritasun-faktoreen gaineko intzidentzia kaltegarri nagusiak (IKNak) kontuan hartzen dituzten jakinarazteko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko 2019/2088 EB Erregelamenduak, finantza-zerbitzuen sektoreko jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzkoak (Dibulgazio Erregelamendua), agindutakoari jarraituz. Kontuan hartzen ez badituzte, horren arrazoia azaldu beharko dute, eta, dagokionean, intzidentzia kaltegarri horiek kontuan hartzea aurreikusten duten eta noiz egingo duten argitzeko informazioa erantsi.

Eginkizun hori betetzeko helburuz, jakinarazten da Caja Laboral Pensiones SA GFPk gaur egun ez dituela jasangarritasun-faktoreei buruzko intzidentzia kaltegarriak kontuan hartzen, inbertsioen kudeaketan; izan ere, intzidentzia kaltegarri horiei dagokienez, ez dauka arreta egokia eskaintzeko politikarik. Kudeatzailearen arreta egokiari buruzko politika SFDR araudiaren arabera 8. edo 9. artikulukotzat jo daitezkeen pentsio-funtsei soilik aplikatzen zaie.